



araba alava **Lalio** **gort**  
leku aldundia diputacion foral

likusune



# Zer egin LGTBI+fobiaren aurrian





# Zer da Ikusgune

LGTBI+fobiaren aurkako behatokia da Ikusgune, Lumagorri ZAT, Zisheterosexismoaren Aurkako Taldearen proiektu bat. Homofobia, lesbofobia, bifobia, transfobia eta enebefobiaren aurkako behaketa-sistema iraunkorra da Arabako lurralde osoan.

Ikusgunen datuak biltzen ditugu, salaketa judicial eta sozialerako gonbidapena egiten dugu eta, ahal den kasuetan, sexu-orientazioagatik, genero-adierazpenagatik edo -identitateagatik urratutako eskubide bat erreparatzen ahalbidetzen duten beste bide batzuk esploratzen ditugu.

## Zer eskaintzen dugu

Arabian LGTBI+fobiari dagokionez dagoen egoerari buruzko datuak biltzea, arreta berezia jarriz graduatzen ditugun gorabeheri: irainak eta mehatxuak, gorroto-diskurtsoak, diskriminazioa, eraso fisikoak eta zisheterosexismoaren erreprodukzioa.

Erasorik gertatuz gero, garrantzitsua da ospitale batera joatea, lesioen parte bat egitera, eta salaketa jartzea, epaitegian edo komisarian. Ikusgune prest dago erasotuari laguntzeko leku horietara berarekin batera joaten, berak hala nahi izanez gero.

# Zer egin eraso baten aurrean

- Saiatu lasai egoten. Lekukorik izanez gero, haien telefono-zenbakia jaso, gertatutakoa ikertu eta epaitzeko orduan haien laguntza izan ahal izateko.
- Bakarrik bazaude, deitu adiskide on bati, zure alde egin dezan. Guri ere deitu ahal diguzu: **633 309 653**
- Kalte fisiko edota psikologikoak nozitu badituzu, deitu iezaguzu ospitale edo osasun-zentro batera arreta jasotzeko. Behar baduzu, deitu **112** zenbakira, anbulantzia etor dadila zuri laguntzera.

Poliziarri dei diezaiokezu zuzenean. Erasoari buruzko parte bat idatzi beharko du, eta gero parte horrek froga gisa balioko du. Gainera, uste baduzu erasotzaileak gertu daudela, poliziak erasotzaileak aurki ditzake; kasu horretan, 112 telefonora deituz ere egin dezakezu salaketa.

Jar zaitetz gurekin harremanetan, 633 309 653 telefonora deituz, edo Whatsapp edo Telegram aplikazioak erabiliz, edo online salatu orri honetan bertan. Hitz egiteko beharra baduzu, hustutzekoa, ez dudarik egin, guregana jo, ahal dugun guztian lagunduko dizugu eta.



Komeni da elkarte baten esku uztea salaketa publikoa eta erantzun soziala, sare sozialetan modu pertsonalean egin beharrean. Ez zaitetz inola ere sare sozialetan azaldu, ez behintzat ondo aholkatzen zaituen erakunde batekin hitz egin aurretik. Gogoratu publiko egiten dugun guztia hor geratzen dela betiko.

# Ospitalean

Zurekin egotea behar baduzu, ez izan zalantzarik (**633 309 653**).


Eraso fisiko bat nozituz gero, ezinbestekoa da jasan dituzun kalteak ebaluatuko dituen parte mediko bat edukitzea; parte mediko hori froga dokumental gisa aurkeztuko da, epaiketarik izanez gero.

Oso garrantzitsua da harrera eman diguten medikuei azaltzea dauzkagun zauriak edo jasandako kalteak LGTBI+fobikoa eraso baten ondorio direla, hala jasota gera dadin dagokion txostenean

# Salaketa

Lehenik eta behin jakin ezazu komeni dela gurekin harremanetan jartzea (633 309 653), gure laguntza behar duzulako, edo gertatutakoaren berri izateko, besterik gabe. Horrek estrategiak taxutzen eta eraso LGTBI+fobikoei aurre egiten lagunduko digu; gainera, gertatzen ari denari buruzko benetako ideia izateaz gain, baliabideak eskatu ahalko ditugu eraginkortasun handiagoz aurre egiteko.

**Eraso bat egonez gero, salatu! Ez isildu.** Zenbat eta lehenago egin, orduan eta hobeto; horrela ikerketa hobeto egiten lagunduko duzu.




# Zer egin irain edota mehatxu kasu baten aurrean

LGTBI+ pertsonen errealitateei buruzko diagnostiko batzuek adierazten dute LGTBI+ pertsona askok modu naturalean onartzen dugula kausalitate horregatik irainduak edo mespretxatuak izatea. Lehenik eta behin, jakin behar duzu inork ez duela mespretxatzen duen egoerarik jasan behar; eta, bigarrenik, argi izan behar duzu mezu horien aurrean LGTBI+ kolektibo osoaren eta gizartearen gehiengoaren babesa dagoela.

Horrelako egoera batean bazaude, 633 309 653 telefonoaren bidez eman diezagukezu horren berri, dela deiaren, dela WhatsAppen edo Telegramen bidez, dela [www.ikusgune.eus](http://www.ikusgune.eus) webguneko online salaketa-zerbitzuaren bidez. Mezuen argazkiak bidali ahal dizkiguzu, idatziz eman badira. Egoera hori denboran errepikatzen bada, LGTBI+fobikoa den jazarpen-testuinguru baten aurrean egon zaitezke, eta salaketa jar dezakezu.

Mehatxuak gertatuz gero, lor itzazu ahal dituzun proba guztiak (pantaila-argazkiak, grabazioak...) eta sar itzazu USB batean, salaketari eransteko. Grabazioen kasuan, gogoratu baliozkoa izan dadin, zu izan behar zarela elkarrizketan parte hartzen duen pertsonetako bat, eta ezin direla egoitza judizialean baino zabaldu, espazio publiko bateko grabazioa izan ezik, etab.

Nolanahi ere, ezer egin aurretik, Ikusgunerekin edo konfiantzazko zure LGTBI+ erakundearekin harremanetan jartzea gomendatzen dizugu. Ez jarri sare sozialetan edo komunikabideetan, horrek eragina izan baitezake ikerketan eta zure egoera emozionalean.




# Zer egin gorroto-diskurtsoen aurrean

Gorroto-diskurtsoen helburua kolektibo jakin batzuen eskubideak estigmatizatzea da, kriminalizatzea, mespretxatzea, deshumanizatzea edo ukatzea: gure kasuan LGTBI+ kolektiboa. Horiek Sare Sozialetan, komunikabideetan edo laneko, familiako edo beste edozein tokitako ohiko elkarrizketa batean gerta daitezke.

Diskurtso horiek, askotan, erakundeen araudiek babesten dituzte eta, beste batzuetan, adierazpen-askatasunaren erabilera aipatzen da. Jakin behar duzu Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegiaren jurisprudentzia zorrotza dela eta gorroto-diskurtsoak ezin direla babestu adierazpen-askatasunean.

Printzipioz, adierazpen horiek hutsalak direla edo entzundakoak izanaren ondorio handiagorik gabekoak dirudite. Baina, egia esan, gorroto-diskurtsoek gorrotatzeko legitimitatea finkatu nahi dute eta, beraz, kolektibo hori diskriminatzeko edo erasotzeko. Horregatik, tinko eutsi behar diogu gorroto-diskurtsoei.

Adierazpen horiek pertsona publikoek espazio publikoan egiten badituzte, pantaila-argazkiak edo argazkiak egitera eta 633 309 653 telefonoaren bidez jakinarazteko gonbidatzen zaitugu, deiares, WhatsAppen edo Telegramen bidez edota [www.ikusgune.eus](http://www.ikusgune.eus) webguneko online salaketa-zerbitzuaren bidez. Horrela, gertakaria irekiko dugu, eta aukera emango digu baloratzeko gure ahalmenean dagoen nolabait jardutea.



# Zer egin diskriminazio egoera batean aurrean

Sexu-orientazioagatiko, genero-adierazpenagatiko edo -identitateagatiko diskriminazioa delitua da, baita larrigarria ere, baldin eta zerbitzu baten ukapena administrazioko erakunde edo langile baten zati bada.

Horrelako egoera baten aurrean bazaude, establezimenduari erreklamazio-orriak eska diezazkiokezu. Orri horiek emateko eta gertatutakoa in situ idazteko betebeharra izango du. Ez ahaztu zerbitzu edo arreta hori ukatzeko arrazoiak aipatzea, baita esan ahal izan dizkizuten esamoldeak ere, soinu txarrekoak izan arren.

Ondoren, Ikusgunera joatea gomendatzen dizugu; horrela, gertatutakoa aztertu eta kasu horietarako jardueraprotokoloak aktiba ditzakegu.

Azkenik, beti joan zaitezke salaketa bat aurkeztera.

Kasu honetan, gogoratu beti, froga eta dokumentazio gehiagoren aurka hobeto aurkezten duzula.



Oso garrantzitsua da beste norbaitekin joatea salaketa formala aurkeztera: gertuko pertsona bat izan daiteke, baita gutariko bat ere; jakina!

Trans, lesbiana, bisexual edo gay garelako gertatu dela eraso adieraztea oso garrantzitsua da ere bai. Halaber, azaldu behar da ea zure sexu-orientazioagatik edo genero-identitateagatik iraindu zaituzten, barre egin badizuten eta irrigarri utzi zaituzten zure mugimenduengatik (luma izateagatik), eraso zer espaziotan gertatu den edo erasoa LGTBI+ ageriko pertsona izateagatik gertatu den.

Gogora ezazu, zure esku gaude Arabako edozein lekutan. Deitu, aintzakotzat hartu, gure laguntza modu presentzialean behar baduzu zita bat hitzartu dezakegu eta zauden lekura hurbilduko gara.



**633 309 653**

Astelehenetik ostiralera 09:00tik 17:00etara



**info@ikusgune.eus**

Salaketa bat ere jar dezakezu gure webgunean,  
www.ikusgune.eus, online  
salaketa-zerbitzuaren bidez.



**@ikusgune.behatokia**



**@ikusgune**

